

Klima-aldaketa, energia-trantsizioa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak

Euskadiko gazteen iritzia 2022



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK

Ikerketaren metodologia

❖ Kuantitatiboa, inkestaren bidez


- ☐ **Unibertsoa:** Euskadiko 15 eta 30 urte bitarteko gazteak
- ☐ **Lagina:** 3.062 gazte
- ☐ **Galdetzeko bidea:** online
- ☐ **Landa-lana:** 2022ko martxoaren 25etik apirilaren 4ra
- ☐ **Lagin-errorea:** $\pm$ % 1,8 (konfiantza maila % 95,5 eta $p=q=0,50$ izanik)
- ☐ **Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa:** Gazteen Euskal Behatokia
- ☐ **Inkesten bilketa eta datu-basearen sorrera kudeatzea:** Ingartek Consulting S.L.

Gaur egungo klima-aldaketa muturreko fenomeno meteorologikoak sortzen ari da, hala nola uholdeak, bero-boladak, hotz-boladak, eta abar. Zure ustez, klima-aldaketa hori gizakiaren ekintzaren ondorio da edo, glaziazioekin gertatu zen bezala, aldiro gertatzen den natura-aldaketa da? (%)




Gazteen erdiak baino gehixeagok uste du klima-aldaketa giza ekintzaren ondorio hutsa dela (% 53,3), baina ehuneko handi batek (% 44,2) uste du natura aldaketa ziklikoek ere eragiten dituela.

Klima-aldaketari buruzko iritzi hauetatik, zeinekin zaude ados? (%)



Lau gaztetik hiruk uste dute egungo egoera klima-larrialdikoa dela (% 78,7).

Klima-aldaketaz eta horri lotutako guztiaz pentsatzen duzunean, ondokoan artetik, zein bi sentimendu nagusi dituzu? (%)




2021eko biztanleria osoaren datu-iturria: Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa
*Batura 100 baino gehiago da, 2 sentimendu aipa zitezkeelako.

Klima-aldaketari buruz hitz egitean, gazteek batez ere ezintasuna sentitzen dute (% 50,2), ondoren haserrea (% 45,4) eta beldurra (% 38,4).


Haserrea eta beldurra zabanduago daude gazteen artean biztanleria osoan baino.

Zein neurritan zaude interesatuta klima-aldaketarekin lotutako gaietan? (%)



Lau gaztetik batek interes handia du gai horretan (% 23,4).


Ondoko zerrendatik, zeintzuk dira klima-aldaketarekin lotutako gaiei buruzko informazioa jasotzeko zure 3 iturri nagusiak? (%)



**Batura 100 baino handiagoa da, 3 informazio-iturri aipa zitezkeelako*

Gazteek klima-aldaketarekin lotutako gaiei buruz informatzeko erabiltzen dituzten iturri nagusiak Internet eta sare sozialak (% 73,8) eta telebistako albisteak eta dokumentalak (% 67,7) dira.


Zenbateraino zaude ados ondoko baieztapenekin? (%)



Gazteek uste dute erakundeek dirua bideratu beharko luketela klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, eta enpresa batzuen hipokrisia salatu dute.


Uste dute aurrerapen zientifikoak ez direla nahikoa izango arazo horri aurre egiteko, eta uste dute gure eredu ekonomikoa eta gure kontsumo-ohiturak aldatu beharko ditugula.

Euskadin pentsatzen baduzu, ondoko iritzietatik, zeinekin daukazu adostasun handiena? (%)




Gazteak nahiko banatuta daude Euskadin klima-aldaketaren aurkako borrokari lehentasuna eman behar zaiola uste dutenen (% 50,1) eta une honetan beste lehentasun batzuk daudela uste dutenen (% 44,1) artean.

*Klima-aldaketaren ondorioak murrizten edo gelditzen saiatzeko funtsezko faktorea energia-trantsizioa da.
Entzun al duzu ezer energia-trantsizioari buruz? (%)*



Lau gaztetik hiruk energia-trantsizioaren berri izan dute.


Energia-trantsizioak erregai fosilak (ikatz eta petrolioak, esaterako) erabiltzetik energia-iturri berriztagarriak (eguzki-energia, energia eolikoa, etab.) erabiltzera pasatzea dakar. Zu prest egongo zinateke zure inguru hurbilean energia berriztagarriko instalazio bat edukitzeko, adibidez eguzki-parke bat edo haize-erroten parke bat? (%)



Gazte gehienak inguru hurbilean energia berriztagarrien instalazio bat izateko prest daude.


Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 2021eko martxoko datuen arabera, biztanleria osoan prest daudenen ehunekoa zertxobait txikiagoa da, % 75.

Entzun al duzu ezer Europako Itun Berdeari buruz? (%)




Gazteen erdiek baino gehixeagok izan dute Europako Itun Berdearen berri.

Europako Itun Berdearen helburu nagusietako bat hau da: 2050 urterako berotegi-efektuko gasen emisio garbia 0 izatea. Zure iritziz, bete liteke helburu hori Europan? (%)




Gazteen % 68,6ren ustez, 2050erako berotegi-efektuko gasen emisioak 0ra murrizteko helburuak betetzeko probabilitate gutxi edo batere ez dago.

Energia berriztagarriak bakarrik erabiltzeko trantsizioan, Europako Batzordeak proposatu du, aldi baterako, energia nuklearra eta gasa energia berde gisa, hau da, energia ez-kutsatzaile gisa hartzea. Zu zenbateraino zaude ados energia nuklearra energia berde gisa hartzearekin? Eta gasa energia berde gisa hartzearekin? (%)



Gazteen ia heren bat (% 31,4) oso edo nahiko ados dago aldi baterako energia nuklearra energia berde gisa hartzearekin. Eta % 22,7 ere ados dago gasari dagokionez aldi baterako kontsiderazio horrekin. Hala ere, gehienak horren aurka daude.


Zenbateraino zaude ados ondoko baieztapenekin? (%)



Alde batetik oso edo nahiko ados eta bestetik ez oso ados edo batere ados ez daudenen ehunekoak batuta, ikusten dugu gehiago direla iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea nahiago luketen gazteak, nahiz eta energia hori garestiagoa izan.


Ukrainako gerrak eragindako egoerak trantsizio energetikoa bizkortzea eragingo ote duen galdetzean, gazteria zatituta dago.

Zenbateraino zaude ados ingurumen-gaiek zure eguneroko bizitzan eta osasunean eragin zuzena dutela dioen baieztapenarekin? (%)



Gazte gehienek uste dute ingurumen-gaiek eragin zuzena dutela beren bizitzan eta osasunean (% 82,6 oso edo nahiko ados daude baieztapen horrekin).


Orain adierazi, mesedez, ondoko portaera bakoitza jarraitzen duzun (normalean egiten dutenen %)



Gazte gehienek erregulartasunez egiten dituzte proposatutako ekintza gehienak, etiketa ekologikoa duten produktuak edo bigarren eskukoa erostea izan ezik.

Ingurumenarekiko arreta eguneroko bizitzan


Orain adierazi ondoko portaera bakoitza jarraitzen duzun normalean, eta horrela bada, zein den hori egiteko arrazoi nagusia (%)



Proposatutako ekintzetatik, birziklatzeko zaborra bereiztea edo erosketak-poltsa eramatea baino ez dira egiten ingurumena zaintzeko. Beste kasu batzuetan, aurrezteak da arrazoi nagusia.

Ingurumenarekiko arreta eguneroko bizitzan


Zu zenbateraino egongo zinateke prest ingurumena zaintzeko ondoko ekintzak modu erregularrean egiteko? (oso prest daudenen %)



Gazte gehienak oso prest daude plastikoen kontsumoa murrizteko edo oinez edo bizikletaz joateko 3 km baino gutxiagoko hiri-ibilbideetan.


Ingurumena zaintzeko proposatzen diren gainerako ekintzek ez dute lortzen, gazte gehienak oso prest agertzea ekintza horiek egiteko. Gazteek gutxien babesten duten ekintza etxeko banaketa dakarten produktuak Internet bidez erosteari uko egitea da.

Orain, zugar pentsatzen, ingurumenaren zaintza edo klima-aldaketaren kontrako borroka helburu zuten hauetako ekimenen bat egin duzu azken urtean? (%)




Azken urtean, ingurumenaren babesari edo klima-aldaketaren aurkako borrokari buruz proposatutako ekintza batek ere ez du batu gazteen gehiengoa.

Bazara elkarte ekologista bateko kidea edo ingurumenaren babesari edo klima-aldaketaren kontrako borrokari lotutako elkarteren bateko kidea? (%)




Gazteen % 5,4 bakarrik dago gaur egun erakunde ekologistaren batean.

Horrelako elkarteren bateko kidea izan zein ez, zuk zein neurritaraino definituko zenuke zure burua ekologista moduan? (%)



Gazteen % 6,8k bakarrik uste du oso ekologista dela. Nahiko ekologistatzat jotzen direnak ere kontuan hartzen baditugu, ehunekoa % 60,8ra igotzen da.

Bestalde, entzun al duzu Nazio Batuen Erakundeak (erderaz ONU) ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren berri? (%)



Hiru gaztetik bik (% 66,2) Garapen Jasangarrirako Helburuen berri izan dute, biztanleria osoa baino hogeit hamar puntu gehiago (% 46, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2021eko azaroan jasotako datuen arabera).

Garapen Jasangarrirako Helburuak

2030 Agendak 17 helburu planteatzen ditu mundu mailan, guztiontzako etorkizun jasangarriagoa eta duinagoa lortzeko. Zure ustez, helburu horietatik, zeintzuk izan beharko lukete lehentasunezko 3ak Euskadin ekiteko? (%)



Garapen jasangarrirako 17 helburuetatik, gazteek uste dute Euskadirentzat lehentasunezkoak diren hiru helburuak osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza eta pobraziaren amaiera izan beharko liratekeela. Klimaren aldeko ekintza rankingeko zazpigarren postuan dago.

INKESTAREN EMAITZA ESANGURATSUENAK

Klima-aldaketari buruzko iritziak eta informazioa

Gazte gehienek uste dute egungo egoera larrialdi klimatikokoa dela (% 78,7), eta, batez ere, ezintasuna eta haserrea sentitzen dute klima-aldaketa pentsatzean (% 50,2k eta % 45,4k, hurrenez hurren). % 50,1ek uste du klima-aldaketa aurrak borroka lehentasuna izan beharko lukeela Euskadirentzat.

Gazteen iritziz, aurrerapen zientifikoek ezin izango diote aurre egin klima-aldaketari gure bizimodua aldatzen ez badugu; aitzitik, gazteek uste dute gure eredu ekonomikoa eta gure kontsumo-ohiturak aldatu behar ditugula.

Energia-trantsizioa

Gazte gehienek izan dute energia-trantsizioaren eta Europako Itun Berdearen berri (% 74,6k eta % 55,7k, hurrenez hurren). Halaber, gehienek ustez, ez da beteko itun horren helburu nagusietako bat, 2050erako berotegi-efektuko gasen isurketa garbia 0 izatea.

Gehiago dira iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea nahiago dutenak, nahiz eta elektrizitateagatik prezio handiagoa ordaintzea ekarri (% 54,2), prezio altuagoa ordaintzearen aurka daudenak baino (% 37,1). Nolanahi ere, hamar gaztetik zortzi (% 83,3) bere inguru hurbilean energia berriztagarrien instalazio bat izateko prest ageri dira.

INKESTAREN EMAITZA ESANGURATSUENAK

Ingurumenarekiko arreta eguneroko bizitzan

Gazte gehienek uste dute ingurumen-gaiek eragin handia edo nahikoa dutela beren eguneroko bizitzan eta osasunean (% 82,6), eta gehienek esan dute ingurumena zaintzeari lotutako portaerei jarraitzen dietela normalean, nahiz eta proposatutakoetatik bi baino ez diren ingurumen-arrazoiengatik egiten, hala nola, birziklatzeko zaborra bereiztea eta norberaren poltsa eramatea erosketak egiteko. Beste kasu batzuetan, berogailuaren erabilera mugatzea adibidez, aurrezteko pisu handiagoko arrazoia da.

Ingurumena zaintzeko hainbat ekintza egiteko prestasunari dagokionez, gehienak plastikoen kontsumoa murrizteko edo 3 km baino gutxiagoko hiri-ibilbideetan oinez edo bizikletaz joateko oso prest daude baina gazteak ez daude prest Internet bidezko erosketak murrizteko edo, hurbiltasuna dela-eta, kostu handiagoa dakarten erosketak egiteko.

Garapen Jasangarrirako Helburuak

Gazteen % 66,2k Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren berri izan dute, Euskadiko biztanleria osoan erregistratutako ehunekoa baino hogeita puntu gehiago.

Gazteen iritziz, Garapen Jasangarrirako 17 helburuetatik, Euskadin ekin beharreko lehentasunezko hiru helburuak osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza eta pobrezia-aren amaiera izan beharko lirateke. Klimaren aldeko ekintza zerrendako zazpigarren postuan dago.

ERANTZUN IREKIAN JASOTAKO GAIAK

400 gaztek baino gehiagok berez erantzun diote galdera-sortaren amaieran egindako galdera ireki bati. Zerrenda honetan gehien aipatu diren gaiak bildu dira.

- Ingurumen-hezkuntza gehiago eremu guztietan.
- Gure bizitza- eta kontsumo-ohiturak aldatzeko inplikazioa.
- Enpresek erantzukizuna beren gain hartzea.
- Ingurumen-legeria murriztaileagoa, bai enpresentzat, bai herritarrentzat, oro har.
- Kritikak egungo eredu ekonomikoari.
- Ikerketa zientifikoa finantzatzea.
- Gobernuen borondate politikorik eza.
- Energia-iturri berriztagarriak bultzatzea.
- Haragiaren kontsumoa mugatzea.
- Prekarietate ekonomikoa ingurumena zaintzeko oztopo gisa.
- Baterako ekintza mundu mailan.
- Energia nuklearraren aldeko iritzi batzuk, erregai fosilen kontsumoaren alternatiba gisa.
- Garapen Jasangarriako Helburuak “green washing” instituzional gisa.

MILA ESKER

